BIZI-TESTAMENTUA

AURRETIAZKO BORONDATEEN DOKUMENTUA, ABD

Aldez aurreko jarraibide gisa ere ezagutzen da.

ZER DA ABD?

Heriotza duina. Heriotza bizitzaren parte da. Familiarekin hitz egin.

Orain erabakiko dut nola izan nahi dudan artatua, ezin izango dudanean.

- Nire bizitza amaitzea nola nahi dudan idatzita uzten dudan dokumentua, nire osasunaren kaltetze fisiko edo psikiko atzeraezinagatik, nire borondatea adierazi ezin dudan egoerara iristen banaiz. Zer jaso edo baztertu nahi dudan adierazten dut istripu, gaixotasun terminal edo sendaezin, zaintza mediko, tratamendu kirurgiko, esperimental, medikazio, lasaigarri eta abarretan.
- Laguntza erlijiosoa jaso nahi dudan edo ez.
- Nolako hileta nahi dudan, eta erraustua edo lurperatua izan nahi dudan.
- Azkar eta minik gabe hiltzeko borondatea adieraz dezaket, legeak eutanasia aktiboa edo positiboa onartzen badu, ekintza bidez (substantzia hilgarria emanda adibidez)
- Nire gorputza zientziari eman nahi diodan ikerketarako edo nire organoak transplanteetarako.
- Edozein unetan baliogabetu edo alda daiteke, erabakiak hartzeko gaitasuna gordetzen bada.

NORK EGIN DEZAKE?

- Adin nagusiko edozein pertsonak, judizialki ezgaituta ez dagoena eta askatasunez jarduten duena.
- Bere erabakiaren ondorioak ulertu behar ditu eta lege mugak ezagutu.
- Idatzizko ADB ezaguna eta etorkizunean eraginkorra izan dadin, erregistratzea komeni da. Bere nahiak zaintzen dituen pertsonak eta bere ordezkariak bere pentsatzeko modua eta balioak ezagutu behar dituzte.

KONTUAN IZATEA KOMENI DA

- Hausnartu bizitzaren amaierarekin lotutako zure balioen eta lehentasunen inguruan. Ideiak ordenatzen laguntzeko, “Piense, reflexione" - "Pentsatu-hausnartu" dokumentu laburra irakurtzea gomendagarria da.
- Familiarekin eta aukeratu dituzun ordezkariekin hitz egin ADBn jaso nahi dituzun erabakiak.
- Zuk hala adierazten baduzu ere, kontuan izan ezin dela legearen aurkako jarduerarik egin.

NORK LAGUN DEZAKE ETA NON EGIN?

Osasun zentroak gaixotasun baten eboluziotik eta erabaki bat edo bestea hartzearen emaitzatik bideratzen du.

Deskargatu modelo orientativo de DVA - ABD eredua deskargatu

- Notario aurrean, lekukorik gabe, 80/100 euro inguru balio du.
- Hiru lekukoren aurrean. Ezin dira senide izan edo harreman ekonomikorik izan.
- Osasun Zentroan, doan. (Hitzordua urtebete baino gehiago atzeratu daiteke)
- Hitzordua doan eskatu hemen: https://www.euskadi.eus/aa98aRegistroVoluntadesWar/solicitudcita/registroCita
- Eusko Jaurlaritzan erregistratu ABD dokumentu sinatua erantsiz, jatorrizko NANa edo titularraren, ordezkarien eta lekukoen kopia konpultsatua, halakorik badago. Baita izapidetze elektronikoa ere.

Informazio gehiago:
https://www.euskadi.eus/informazioa/voluntades-anticipadas/aurretiazko-borondateak-ab/web01-a2inform/eu/